



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN PLEGUAREN AZALA, MASPILZAKO SIFOIA BIRGAITZEKO PROIEKTUAREN OBRAK KONTRATATZEKO 3228 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA

Erregulazio bateratua duen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa ☐ Premiazkoa ☐ Larrialdia ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3. - Kontratuaren arduraduna:	Jose Carlos Gimeno Gimeno
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratuaren xedea: MASPILZAKO SIFOIA BIRGAITZEKO PROIEKTUAREN OBRA 2.- Bete beharreko premiak: Ordunteko kanalaren bitartez ur-horniduraren jarraikortasuna eta edukiera bermatzea. Horretarako, Maspilzako sifoia ezkerreko adarra birgaituko da. Gaur egun ez dago martxan eta egoera oso kritikoan dago. Jarduketa horrekin, irtenbide operatibo bat egotea da asmoa, martxan dagoen adar bakarrak (eskuinekoak) huts eginez gero. Gainera, etorkizuneko eskariei erantzuteko emaria handitzea ahalbidetuko da. 3.- Sortetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Sortetan banatu ez izanaren justifikazioa: Maspilzako sifoia birgaitzeko obra ezin da sortetan banatu Artigas ekoparkearen barnean kokatuta baitago. Espazioa mugatua da eta jarduera logistiko handia dago bertan. Kontratua bereiztean enpresa eta instalazio gehiago inplikatuko lirake eta gune kritikoekiko interferentziak gehituko lirake, hala nola lixibiatuen nabea, balbula-gela eta hondakindegiko sarrerak. Gainera, karbono-zuntzarekin egindako lan espezializatuak jarraipen tekniko behar dute eta kontratista bakarrak egiten ditu. Sifoiak ez du ahalbidetzen partzialki martxan jartzea. Horrenbestez, osorik egin beharra dago. Kontratua bereiztean gatazkak sortuko lirake koordinazioan, erantzukizunean eta segurtasunean eta esku-hartzearen bideragarritasuna eta kalitatea arriskuan jarriko lirake.
4.- CPV: CPV kodea:45232150-8 Deskribapena: Ura banatzeko hodiekin lotutako lanak
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ



B.- KONTRATUAREN XEDEA.

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratibo ☐ pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

BI MILIOI BEDERATZIREHUN ETA LAUROGEITA
HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA BAT EURO
ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMO
(2.934.301,52 €), BEZik gabe.

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: BI MILIOI BEDERATZIREHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA BAT EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMO (2.934.301,52 €), BEZik gabe.

Sortak:

☐ BAI

☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

2026. urtea ---- 452.99-601.11 partida. ----- 1.000.000,00 €

2027. urtea ---- 452.99-601.11 partida. ----- 1.934.301,52 €

5.- Prezioak berrikustea:

☒ BAI

☐ Ez

Aplikatzekoa den formula: **OBRA HIDRAULIKOAK. 561. formula: Eduki altua siderurgian, zementuan, arroketan eta agregakinetan. Tipologia adierazgarrienak: Hornidurako eta saneamenduko instalazioak eta hoditeriak.**

$$Kt = 0,10Ct / C0 + 0,05Et / E0 + 0,02Pt / P0 + 0,08Rt / R0 + 0,28St / S0 + 0,01Tt / T0 + 0,46$$

Prezioak berrikusteko formuletan "t" azpiadierazlearekin azaldu dira material bakoitzaren prezioen adierazleen balioak kontratua betetzeko aldiari dagokion hilabeteen. Horren zenbatekoa berrikusi egin behar da, baita ere formularen atera den berrikusteko Kt koefizientea. Horretaz gain, "0" azpiadierazlearekin irudikatu dira material bakoitzaren prezioen adierazleen balioak 9/2017 Legearen 103. artikularen 4. apartatuak aipatzen duen egunean.

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Ohikoa, hileko ziurtagiriak.

8.- Ordainketak kontura: Ez da egin behar.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HAMAHIRU (13) HILABETE



D.- KONTRATUAREN EPEA

2.- Epe partzialak.

☐BAI ☒EZ

3.-Luzapena

☐BAI ☒EZ

4.- Berme-epea: Enpresa adjudikaziodunak eskainitakoa, sekula ere ez URTEBETE (1) baino gutxiago.

5.- Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak. Maspilzako sifoia.

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Ez da egin behar.

G.-GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Ez da egin behar.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

E taldea, 1. Azpitaldea eta 5. kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio iritzien arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK

a) Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia (23 puntu)

Proiektuaren analisia

Lizitatzailerak proiektuaren azterlan bat egingo du eta proiektuaren dokumentazioari buruz ondorioen zerrenda bat sortu beharko du, ezagutza-maila agerian uzteko. Halaber, garapenean eragin dezaketen kanpo-baldintzatzaileei buruzko azterlanak eta lizitatzaileraren ustez kontratuarentzako garrantzitsuak diren bestelako inguruabarrei buruzkoak baloratu egingo dira. Beste batzuen artean, baloratuko da hirugarrenei ahalik eta enbarazurik gutxien eragiteko azterlanak egitea eta aztertzea ea errekaetoak, bertako basoko landareak edo zuhaixkak, errepideak, ur-hoditeriak edo obrenkatik eraginpean egon daitezkeen bestelako zerbitzuak ote dauden.

Obrako lanak aztertzea

Obraren jarduketa nagusi bakoitzean aztertu egingo da proposatutako lanak eta/edo irtenbideak teknikoki nola egingo diren. Xehetasunez azalduko dira teknologia eta beharrezko eraikuntza-prozesuak eta garapenean libratu beharreko zailtasunak identifikatuko dira: kokapena, ezarpena, instalazio osagarriak, metaketak, obrarako sarbideak, lehendik dauden zerbitzuen gaineko eraginak, etab., eta proposatutako metodoak eta bitartekoak zehaztuko dira. Bereziki, lan hauek xehatu beharko dira:

- Egiturazko eta korrosioaren aurkako birgaitzea metalezko hoditeriaren karbono zuntzaren bidez, kokapenaren arabera: ezarpena, betearazpen-sistema, materialak, prozesuak eta faseak. Barneko eta kanpoko azken akabera.
- Metalezko hoditeria berriarekin ordezkatzeko, kokapenaren arabera. Aurreko lanak, materiala, betearazpena eta kanpoko estaldura.
- 126. eta 127. dorretxoak: arkitektura hobetzea eta ezkerreko beheko hutsunea iragazgaiztea 126. dorretxoan. Betearazpena.
- Dorretxoetarako eta Artigaserako sarbideak. : lursailak birgaitzeko lanak.
- Balbula-gela berritzea: Obra zibila, instrumentazioa, instalazio elektrikoak, kontrola eta komunikazioa.

b) Obran erabili daitezkeen bitartekoak eta lanen programazioa (22 puntu)

Obran erabili daitezkeen bitartekoak:

Organigrama eta obrarako proposatzen den antolamenduaren deskribapen funtzionala entregatuko dira eta lantaldea definituko da, prestasuna zehaztuz eta langileen kualifikazioa eta esperientzia azalduz. ABEEen kasuan, argi eta garbi definituko da enpresa parte-hartzaileen funtzioen banaketa.

Proposatutako taldeen zerrenda xehatuko da; kopurua eta eskulanaren eta makinaren dimentsionamendua zehaztuko dira, baita ere jabetza eta obrarekiko konpromisoak, ongi arrazoituta.

Lizitatzailerak uste badu beharrezkoa dela lanen zati bat hirugarrenekin hitzartzea, horien izenak, erreferentziak, aurrekontuarekiko ehunekoak eta konpromiso-gutunak adieraziko dira eta, edonola ere, enpresa-profila edo sailkapena.

Obran erabiliko diren materialen eta mekanismoen zerrenda jasotzen duen laburpen-taula aurkeztuko da eta bereziki jasoko dira obrarako kritikoak direnak, marka eta modelo barne.

(*) Obra honetako eraikuntzan eta ustiapenean karbono-zuntzaren bidez egitura birgaitzeko eta korrosioaren aurkako sistema eta metalezko hoditeria garrantzitsuak direnez, lizitatzailerak espezifikoki

entregatu beharko ditu agiri hauek proposatu duen materialerako. Agiriak erantsitako azpiatal espezifiko batean jaso beharko dira.

i. Karbono-zuntzaren bitartez hodien egitura-birgaitzea eta korrosioaren aurkako birgaitzea egitea

a) CFRP sistemarekin hoditeriaren egitura-birgaitzea egitea AWWA C305ren baldintzak betez:

1. Ziurtagiri horrekin egiaztatzen da hoditeriaren kanpoaldea eta barnealdea indartzeko materialek, diseinuak, aplikazio-prozedurak eta kalitate-kontrolak nazioarteko araudiaren baldintzak eta gomendioak betetzen dituztela: AWWA C305.
2. Kualifikatutako langileen ziurtagiria, CFRP sistema aplikatuz eta AWWA C305 ziurtagiriaren arabera.
3. Ziurtagiria, bermatzen duena erabilitako materialek UNE EN 1504-4 arauaren baldintzak betetzen dituztela. Aurrekoak bermatzen du substratuaren gaineko egitura-itsaspena dagoela.
4. Ziurtagiriak, egiaztatzen dutenak azken estaldurako materialak gainazal osoan korrosioaren, higaduraren, ur zikinaren, ur puruaren edo irteeraren aurkako babesa eta UVaren aurkako babesa ematen dituela.
5. Edateko urarekin kontaktuan dauden produktu guztien osasun-adostasunaren ziurtagiria, Europako (Frantzia, Alemania, Herbehereak...) araudiaren arabera eta Europako erakunde ziurtatzaile batek emandakoa.
6. ISO 9001. 2015 kalitatearen kudeaketa-sistemaren ziurtagiria. Enpresa fabrikatzailearen eta enpresa hornitzailearen izenduna izan beharko da enpresa ezberdinak badira eta Europako erakunde egiaztatuak eman beharko du.
7. ISO 14001.2015 ingurumen-kudeaketako ziurtagiria, Europako erakunde egiaztatu batek emandakoa.
8. Egindako obren ziurtagiria, CFRP sistema aplikatuz eta AWWA C305en arabera.

b) Hodien egitura birgaitzea infusio- eta huts-teknologiaren bidez.

1. Ziurtagiria, egiaztatzen duena hoditeriaren barnetik edo kanpotik material konposatuekin egindako egitura-errefortzuaren materialak eta diseinuak ISO 24817 eta ASME PCC-2 arauak ezarritako baldintzak eta gomendioak betetzen dituztela.
2. Ziurtagiriak, egiaztatzen dutenak langileek beharrezko kualifikazioa eta trebetasuna dituztela zenbait geruzetan infusio- eta huts-teknologiarekin lan egiteko, ISO 24817 eta ASME PCC-2.
3. Ziurtagiriak, egiaztatzen dutenak azken estaldurako materialak gainazal osoan korrosioaren, higaduraren, ur zikinaren, ur puruaren edo irteeraren aurkako babesa eta UVaren aurkako babesa ematen dituela.
4. Edateko urarekin kontaktuan dauden produktu guztien osasun-adostasunaren ziurtagiria, Europako (Frantzia, Alemania, Herbehereak...) araudiaren arabera eta Europako erakunde ziurtatzaile batek emandakoa.
5. ISO 9001. 2015 kalitatearen kudeaketa-sistemaren ziurtagiria. Enpresa fabrikatzailearen eta enpresa hornitzailearen izenduna izan beharko da enpresa ezberdinak badira eta Europako erakunde egiaztatuak eman beharko du.
6. ISO 14001.2015 ingurumen-kudeaketako ziurtagiria, Europako erakunde egiaztatu batek emandakoa.
7. Ziurtagiria, egiaztatzen duena obrak zenbait geruzatan infusio- eta huts-teknologiarekin egin direla.

ii. Altzairuzko hodiak

1. Ziurtagiria, egiaztatzen duena UN EN 10.224 araua betetzen dela: Aleatu gabeko altzairuzko hodiak eta osagarriak likido urtsuak garraiatzeko, giza kontsumorako ura barne.
2. Ziurtagiria, egiaztatzen duena UN EN 10025 araua betetzen dela: Egituratarako altzairuen beroan ijeztutako produktuak.

Obraren plangintza orokorra eta lanen programa:

Obrak garatzeko plangintza orokorra koherentea izatea baloratuko da eta kontuan hartu beharko dira obren kokapena eta obrak egiteko proposatutako bitartekoak. Behar bezala justifikatutako lanen programazioa gehituko da, obrarako eskuragarri jarritako ekipoen eta bitartekoen arabera eta proposatutako errendimenduekin koherentea izan beharko da. Bereziki hauek baloratuko dira:

- Jarduerak definitzeko xehetasun-maila eta jardueren sekuentziaren koherentzia obra-lanak egitean.
- Ekipoei esleitutako errendimenduen definizioa eta definitutako jardueren estimatutako benetako iraupenaren justifikazioa.
- Obra-planaren definizioa. Gantten diagramaren bitartez adierazi beharko da eta bide kritikoaren azterlana eta lasaierak sortzea.

EZ DA PUNTURIK EMANGO LANEN EPEAK MURRIZTEN BADIRA

c) Ingurumen- eta gizarte-irizpideak (5 puntu)

Ingurumen-irizpideak (3 puntu). Honela baloratuko dira:

- 2 puntu: Gehienez ere 2 puntu obran garatuko diren prozeduretarako eta baliabideetarako, ezaugarri eta berezitasunei egokituta. Modu horretan bermatuko da lanak egitean ingurumen-inpaktuak prebenitzen eta minimizatzen direla.
- 1 puntu: Gehienez ere 1 puntu obra-hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatuko direla bermatzen duten proposamenei. Horretarako, Hondakinen Kudeaketa Planaren aurrerapen gisa taula bat sortu beharko da eta bertan azalduko dira obran sortuko direla aurreikusten diren hondakinak, kantitateak eta aurreikusitako tratamendua (balorizazioa edo deuseztatzea).

Gizarte-irizpideak (2 puntu). Kontratuko plantillaren berdintasunarekin lotuta ezarritako neurriak. 2 puntu, gehienez.

- Kontratua betetzen duen plantillari emandako prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak berdintasunari buruz.

Dokumentazio teknikoaren edukiak irizpide hauek beteko ditu: gehienez 10 orrialde Din A-4 formatuan obren betearazpen-laburpenerako; 75 orrialde Din A-4 formatuan memoria teknikorako, 30 orrialde Din A-4 formatuan obran eskura egongo diren bitartekoetarako eta lan-programarako eta 10 orrialde Din A-4 formatuan ingurumen- eta gizarte-neurrietarako. Karaktereen gehieneko tamaina ez da izango Microsoft Word-en "11" Arial baino txikiagoa eta atal guztiak modu korrelatiboan zenbakituko dira.

Salbuespen-kasuetan Din A1 eta Din A3 orriak erabili ahalko dira horrela aurkeztu beharreko dokumentaziorako. Orrialdeak zenbatzen direnean ez dira kontuan hartuko azalak, aurkibideak eta obrako lantaldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duten agiriak. Hala, azken informazio hori eranskin bereizi batean atxiki beharko da. Ingurumen-irizpideak baloratzeko zuzen eguneratutako ziurtagiriak emango dira eta irismena jasota egon beharko da.

Aurreko baldintzak urratuz gero, eskaintzailearen balorazioa zehatu egingo da. Ezarritako mugak gainditzen dituen orrialde bakoitzeko eskaintza teknikoaren puntuazioan 0,05 puntu galduko dira.

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK



Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Baldintza tekniko berezien pleguan definitutako unitateen **prezioen zerrenda**, baita ere enpresa lehiakideak aplikatzeko modukotzat jotzen dituen gainerakoak. Aurreko guztia baldintza tekniko berezien pleguan ezarritakoarekin bat etorritz egingo da.
- Proiektua osatzen duten unitate guztien betearazpen materialeko unitate-prezioen zerrenda, hizkiekin eta zenbakiekin idatzita. Prezio horiek eskuratzeko unitatearen kostu zuzenari % 7 gehituko zaio zeharkako kostuen kontzeptuan. Enpresa lehiakideak konpromiso bat hartuko du. Horren arabera, adjudikazioduna bada, 2. prezioen taula beteko du bere eskaintzako prezio unitarioen zerrendan oinarrituta. Egitura egokia izango da agiri horren xedek betetzeko eta azkenean obra-zuzendaritzari entregatuko zaio zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denetik aurrera kontatzen hasita lehen hilabetea igaro baino lehen.
 - Aurkeztutako unitate-prezioak kalkulatzeko erabili diren eskulanaren, makinen eta materialen oinarritzko unitate-prezioen zerrenda.
- b) **Kontratuaren aurrekontua.** Enpresa lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz eta mehatz idatzi beharko da atxikitako proiektuaren aurrekontuarekin bat etorritz eta baldintza tekniko berezien pleguaren arabera. Eskaintako prezioan zerga guztiak jasota egon beharko dira, BEZa salbu.
- Betearazpen materialaren aurrekontua, enpresa lehiakideak lizitazio-proiektuaren neurketetarako eskaintako unitate-prezioak aplikatuz. Aurrekontu hori PRESTO programan bete beharko da eta paperezko edizioaz gain, euskarri magnetikoko beste bertsio bat ere entregatuko da. BC3 formatuan aurkeztea onartuko da aipatutako programak izan ezean.
 - Obraren aurrekontua. Kalkulatzeko, aurrekontu materialari % 19 gehituko zaio gastu orokorren eta industria-irabaziaren kontzeptuan.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik AKBPen 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoa aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentetza/ Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Kideak (titularrak/ordez kariak):
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria (titularra/ordezkarria):
Gerardo Latorre Pedret jauna.

☐ Adituen batzordea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan lortu ahal den gehieneko puntuazioa 50 puntukoa da.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoearekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira formula matematikoekin. Balio hauek esleituko dira:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu horien balioak aurretik adierazi den K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honi dagokiona da:

Si $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$P_i = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Si $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Si $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Si $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Si $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Formula horien bitartez eskuratutako P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurreko K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

- **Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia----- 23 puntu.**
 - Proiektuaren analisisa
 - Obrako lanak aztertzea
- **Obrarako eskuragarri jarritako bitartekoak----- 22 puntu.**
 - Obran erabili daitezkeen bitartekoak
 - Obraren plangintza orokorra
 - Lanen programa
- **Ingurumen- eta gizarte-irizpideak----- 5 puntu.**
 - Ingurumen-irizpideak (3 puntu)
 - Gizarte-irizpideak (2 puntu)

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiagoa. Berdinketak egonez gero, plantillako desgaitasuna duten langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillan emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 ale gutxiago dituenean.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 ale baino gutxiago dituenean.
- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da % 25 aletik gorako beherapena.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 aletan baino gehiagotan gaintitzen duten eskaintzak badaude, batez besteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarrik izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko erregimenean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerik hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxienezko atalasea:

Prozesutik kanporatuko dira eskaintzaren balorazio teknikoan gutxienez 25 puntu eskuratzen ez dituztenak.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enuntziazioa: Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

Zehapenen zenbatekoa:

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatik erantzukizun-asegurua baduela.

Administrazio-klausula berezien pleguaren gehigarria. (VIII. eranskina)



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

- a) Kontratua aldatzeko kasuak (xehetasunez eta objektiboki definituta, kontratuaren xedearekin bat etorritik):
b) Aldaketaren irismena (azaldu).....
c) Aldaketaren mugak (xehatu).....
d) Aldaketaren gehieneko zenbatekoa: kontratuaren prezioaren.....%.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez da egin behar.

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☐ BAI
☒ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Obra-zuzendaritza

Lanen kontrola eta ikuskaritza partzuergoko zerbitzu eskudunek egingo dute obra-zuzendaritzaren bidez. Hala, kontratatutako obra zuzen egiteko ikuskaritzak, egiaztapenak eta zaintza-lanak gauzatuko dituzte, administrazio-klausula berezien pleguaren 4. eta 24. klausuletan xedatutakoa betez.

Obrako seinaleak eta kartelak

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez osatu beharko ditu proiektuaren lan-segurtasunaren eta -osasunaren azterlanean adierazitako elementuak, zehazki, obretarako sarbidea, lanak egiten diren espazioko zirkulazioa, puntu arriskutsu posibleen kokapena eta abar adierazteko, bai obra-gunean bai eta inguruetan eta mugetan ere. Gainera, administrazio-klausula berezien pleguaren 23. klausularen aginduak bete beharko dira.

Baimenak eta lizentziak

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez kudeatu beharko ditu udal-baimen guztiak, salbu eta aldarmioak, ibiak eta hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko eta abarretarako obretarako udal-lizentziak. Hala, bere kargura izango dira oso-osorik kudeaketako gastuak eta tasak. Aurreko gastutik salbuetsita egongo da bakarrik udalak obren udal-lizentziaren kontzeptuan fakturatutako zenbatekoa, hala badagokio.

Era berean, bere kargura izango dira beste erakunde batzuetan (aldundian, etab.) baimenak izapidetzeko gastuak (abalak, etab.), baldin eta haren eskumeneko eremuetan gurutzatzeak eta/edo jarduketak egiten badira.

Baloratutako zerrendak

Kontratistak proposatzen dituen hileko baloratutako zerrendak PRESTO programan aurkeztu beharko dira eta programa hori ez badute, BC3 formatuan aurkeztu ahalko dira.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA



Enpresa adjudikaziodunak obra honetara atxiki beharko du ordezkari bat. Enpresaren izenean jarduteko eta/edo enpresa ordezkatzeko behar besteko ahala izan beharko du kontratu-harreman guztian.

Ordezkari horrek eta enpresa adjudikaziodunaren agindupeko langileek ez dute inolako harreman juridikorik, lanekorik ezta bestelakorik izango partzuergoarekin kontratua indarrean dagoenean ezta kontratua bukatzean ere.

Obrako langileak edo langileen prestasuna lizitatzailleak eskainitakotik aldatzen badira justifikatu egin beharko da eta Obra Zuzendaritzak egiaztatuko du gutxienez eskaintzako baldintzak betetzen direla (esleitutako pertsona-kopurua, kualifikazioa eta prestasuna).

Eskaintako baldintzak betetzen ez badira, Obra Zuzendaritzak aukera izango du proposatutako aldaketa ukatzeko eta 1.000 euroko zehapena ezarriko da eta eguneko eta hilabeteko ziurtagiritik kenduko da. Obra Zuzendaritzak hala eskatuta eskaintako taldea obran behin eta berriz ez egotea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

GALDERA-TXANDA

- Eskaintzak aurkezteko aldian lizitatzailleek galdera-txanda bakarrerako aukera izango dute.
- Galderak idatziz egin beharko zaizkio BBUPri, zehazki, Kontratazio Sailari.
- Lizitazioa argitaratzen denetik aurrera aurkeztuko dira eta argitaratu eta hiru asteko epean jasotakoak besterik ez dira onartuko.
- BBUPk idatziz erantzungo ditu galdera guztiak eta eskaintzaile guztiei jakinaraziko dizkie.